

IBARRAREN DESKRIBAPENA XIX. MENDEAN

IBARRAREN DESKRIBAPENA XIX. MENDEAN

XIX. mendearen lehen erdian hainbat hiztegi geografiko, estatistiko eta historiko eman ziren argitara: nazio mailakoak batzuk (Miñano eta Madozen hiztegiak, esate baterako), eta eskualde mailakoak besteak (Historiaren Akademiarena, Yanguas y Miranda-rena, Ochoa-rena eta Ramírez de Arcasen *Itinerario*, besteak beste). Horietan guztietan, oro har Nafarroari buruzko eta bereziki Eguesibarri buruzko oso berri interesgarriak ageri dira. Informazioaren xehetasuna eta hedadura dela eta, Pascual Madozen *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar* hiztegia da garai honetako errealitate sozial eta ekonomikoa ikertu duten historialariek gehien erabili dutenetako bat. Hiztegi honen hamabigarren liburukia, 1849an argitaratua, Nafarroari eskainia dago. Ikus dezagun Madozen hiztegiak ibarra nola deskribatzen zuen oro har XIX. mendearen erdialdean:

Ibar hau 18 lekuk osatzen dute, 1789an probintzia jurisdikzioetan banatzeko egindako prozesuari jarraiki. Udaletxe batean biltzen dira denak, eta batzarrak Olatzen eta Eguesen egiten dituzte, txandaka. Aipatutako 18 lekuak hauek dira: Altzua, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Burlata, Etxalatz, Egues, Egulbati, Elkano, Elia, Erantsus, Gorraitz, Ibiriku, Mendillorri, Olatz, Sagaseta, Sarriguren eta Uztarroitz.

Ibarra hauen menpekoa da: Nafarroako lurralde auzitegiaren eta kapitaintza jeneralaren, Zangozako merindadearen (bertatik 7 legoara dago) eta Agoizko barruti judizialaren menpekoa (ibarretik 3 legoara). Iruñeko elizbarrutira eta Iruñerriko artzapez-barrutira atxikia dago. Ibarra gobernatzeko diputatu orokor bat dago, eta, horrez gain, herri bakoitzean errejidore bana. Esteribarrekin egiten du muga iparraldean, Lizoain ibarrarekin ekialdean, Untzitibar eta Elortzibarrekin hegoaldean, eta Atarrabia eta Huarte hiribilduekin mendebaldean.

Lur-eremu menditsua du, eta klima epela, oro har. Lurra nahikoa emankorra da, eta bi errekek bustitzen dute ezkerretik eta eskuinetik: horietako batek Arga ibaira isurtzen ditu urak, eta besteak Aragoi ibaira. Bi zubi ditu. Bideak herri-mailakoak dira (Iruñekoa eta Agoitzekoa izan ezik), eta egoera onean daude.

Posta Iruñetik jasotzen du, eta postari batek banatzen du ibarrean barna. Datu ofizialen arabera, herriak 296 auzotar eta 1.513 arima ditu. Udal aurrekontua 30.000 errealekoa da eta auzotar guztien diruarekin osatzen da. Ur-iturri apartak ditu, eta biztanleek kontsumorako, abereentzako eta bestelako nekazaritza-erabileretarako erabiltzen dituzte iturriok. Ehizaki ugari dago ibarreko eremu gehienetan: eperrak, galeperrak, erbiak eta untxiak daude, baita orkatzak ere (Gorraitz); piztia-mota ugari ere badago, azeriak, esate baterako.

Irin-fabrika eta erroten egoera, urtean errotetan ehotzen den anega- eta erreku-kopurua eta ibarreko errotak mugitzen dituzten ibaiak eta errekek, hiztegiaren arabera: Elkanon, Uhartan eta Uztarroitzen harri bakarreko 5 errota zeuden, Elia, Arga eta Mintxate ibaiek mugituak, eta 9.595 anega eta 12.000 erreku ehotzen zituzten.

Burlata, Uharte eta Mendillorri alde batera utzita (ibarretik bereizi baitziren historia garaikidean momentu desberdinetan), goazen, bada, Eguesibarko herrien garai hartako ezaugarrietako batzuk ezagutzera:

Altzua. Haizeek astintzen duten muino batean dago, eta klima osasungarria du. 4 etxe dauzka, eta San Estebani (lehen martiri izandakoari) eskainitako parrokia-eliza eta ermita bat. Bikario batek zaintzen ditu biak (elizbarrutiko gotzainak oposizio bidezko lehiaketa orokor baten bidez esleitzen du haren plaza). Eskola Elkano herrian dago, eta hura mantentzeko beste herri batzuekin batera elkarlanean aritzen da. Bi sexueta 32 haurrek ikasten dute bertan, guztiak maisu baten agintaritzapean (honek 1.642 erreale jasotzen ditu urtean). 5.492 erreku-lur daude herrian, baina horietatik 575 baino ez dira lantzen: 150 lehen mailakoak dira, 200 bigarren mailakoak eta 225 hirugarren mailakoak. Horrez gain, 100 erreku-lur mahasti, 80 erreku-lur larre, lizarrez betetako 16 erreku-lur baso, 4.246 erreku-lur sasitza, udalaren 20

erregu-lur eta 142 erregu lurgorri ere badaude. Garia, garagarra, lekaleak eta ardoa hazten da bertan, baina ez asko. 13 auzotar eta 52 arima ditu.

Ardanatz. Altzuza herriaren kokaleku eta klima berbera du. 19 etxe dauzka, eta San Estebani (lehen martiri izandakoari) eskainitako parrokia-eliza bat, apaiz-erretore batek zaindua. Herrian 4.000 erregu-lur inguru daude, baina horietatik 1.700 baino ez dira lantzen, gainontzeko lurak erabat antzuak baitira. Laborantzako lurren artean hauek daude: 120 gizaluz mahasti eta landugabeko zatian zuhaitz-basoz osatutako 500 erregu-lur, sasitzaz osatutako basoen kopuru berbera eta abereentzako bazka ugari eta bikaina duten 1.300 erregu lurgorri. Garia, garagarra, oloa, ardoa eta lekaleak hazten dira herrian. Mandoak, behiak, ardiak eta ahuntzak dituzte. 20 auzotar eta 124 arima ditu.

Azpa. 11 etxe ertain dauzka eta San Martini eskainitako parrokia-eliza bat, "abade" deritzon apaiz batek zaindua. Apaizaren plaza lehiaketa orokor bidez esleitzen da. Lurra malkartsua da, eta emankorra, neurri batean; bertan badira zuhaitz desberdinez osatutako zenbait baso (eraikuntzarako eta erregai gisa erabiltzeko egurra ematen dutenak) eta bazkarako belar zapoetsu ugari. Garia, garagarra, oloa eta lekaleak hazten dira bertan, eta ardo pixka bat ekoizten da. Behiak, mandoak, ardiak eta ahuntzak dituzte. 11 auzotar eta 77 arima ditu.

Badoztain. Eremu lau batean dago. 35-40 etxe inguru dauzka, baita udaletxea, ostatua, taberna eta lehen letretako eskola ere (bi sexuetak 55 haur joaten dira eskolara, eta urtero 2.782 erreal jasotzen ditu eskolak). Parrokia, San Migueli eskainia dago, eta "abade" deritzon apaiz batek eta benefiziadun batek zaintzen dute; ermita bat ere badu. Eremua mendiz eta lautadez osatua dago, eta lehen, bigarren eta hirugarren mailako 2.700 erregu-lur ditu; horien artean 500 gizaluz mahasti daude, ereinaldi bakoitzeko 3 uzta ematen ditu urtean. Landu gabeko lur-zatia, gutxi gorabehera, 2.500 erregu-lurrekoa, bazkarako erabiltzen da eta zuhaitzi ugari dauzka, eraikuntzarako eta erregai gisa erabiltzeko. Garia, garagarra, arto asko, garbantzuak, babak, barazkiak, ardoa eta fruituak hazten dira herrian. Behiak, mandoak, ardiak eta ahuntzak daude. 40 auzotar eta 235 arima ditu.

Etxalatz. Eremu lau batean dago, eta klima hotzekoa da. 6 etxe dauzka, San Martini eskainitako parrokia-eliza bat, abade batek zaindua, eta ermita bat. Eremua kalitate ertainekoa da. Erreka batek zeharkatzen du herria, eta artadiz osatutako mendia du eta zuhaitzez betetako ibar-basoa. Garia, garagarra eta beste fruitu txikiago batzuk hazten dira bertan; abereak ere hazten dituzte herrian. 7 auzotar eta 27 arima ditu.

Egues. Ordoki batean dago, eta klima hotza du. 25 etxe dauzka, eta parrokia-eliza bat (San Martin), bikarioak zaindua. Haurrak Elkanoko elizara joaten dira, herri horixe baitu mugakide iparraldean. Eremua kalitate ertainekoa da. Garia, garagarra, ardoa eta beste fruitu txikiago batzuk hazten dira bertan; abereren bat edo beste ere badago. 26 auzotar eta 119 arima ditu.

Egulbati. Ibarraren iparraldeko muturrean dago, muino baten oinean, eta klima hotza du. Hiru etxe dauzka eta parrokia-eliza bat (Sorkundea), apaiz batek zaindua. Haurrak Elkanoko eskolara joaten dira. Eremua, erdipurdikoko kalitatekoa izanik ere, nahikoa emankorra da, eta ardiak, behiak eta txerriak dituzte. 2 biztanle eta 14 arima ditu.

Elkano. Eremu lau batean dago, eta klima epela du. 26 etxe dauzka. Lehen letretako eskola Ibirikun dago (70 erregu gari jasotzen ditu), eta bertan ikasten dute Etxalatz, Elia, Erantsus, Egues, Egulbati, Azpa eta Sagasetako haurrak. Parrokia-eliza, Garbikundearen Amaren omenezkoa, apaiz batek eta onuradun batek zaintzen dute. Bi ermita daude. Eremua kalitate ertainekoa da, baina oso emankorra. Erreka batek bustitzen ditu lurak. Mendi bat du, zuhaitzirik gabea, baita ibar-baso bat eta zenbait makal ere. Garia, garagarra eta ardoa hazten dira bertan. Ardiak eta behiak hazten dituzte. 29 auzotar eta 147 arima ditu.

Elia. Eremu lau batean dago, amildegi batean, ia-ia ibarraren erdigunean. 11 etxe dauzka, eta parrokia-eliza bat (Jasokundea), abade batek zaindua. Lur-eremua kalitate ertainekoa da, eta mendiz eta lautadez osatua dago. Erreka batek bustitzen ditu lurak, eta harizti-basoa eta larreak ere badaude. Garia, garagarra, ardoa eta bestelako fruitu txikiagoak hazten dira bertan; ardiak, behiak, ahuntzak eta txerriak ere badira. 11 auzotar eta 65 arima ditu.

Erantsus. Mendilerro txiki baten maldan dago, iparretik hegoalderantz sortzen den mendi-bizkar baten gainean hain zuzen. Ezkerraldean zenbatzen hasita, Iruñetik Agoitzera doan errepidetik 500 urratsetara dago. Iparreko haizeek astintzen dute, eta klima osasungarria du, herritarrek tarteka zenbait hantura izaten dituzten arren. 9 etxe dauzka. Lehen hezkuntzako eskola Elkano eta Ibiriku herriak lotzen ditu, eta 80 erregu gari jasotzen ditu. Jasokundea parrokia-eliza abade batek zaintzen du. Hilerrria hegoaldean dago, elizaren ondoan. Eremua buztin-lurrez osatua dago; emankor samarra da, eta pinuz eta zenbait zuhaitzez osatutako mendilerro bat dago ipar-ekialdean, bi baso dituena. Urak Pinalen izeneko iturritik eta amildegitik hartzen dituen erreka bat dago ekialdean; hori dela eta, haren bi alboetan zuhaitzi trinko eta hostotsuak hazi dira eta oso ikuspegi polita sortu dute. Garia, artoa, patatak, oloa eta lekaleak

hazten dira; ardiak, txerriak, ahuntzak eta behiak ere badira. Lehen mailako beharretarako gauzak hiriburutik ekartzen dira. 9 auzotar eta 55 arima ditu.

Gorraitz. Mendiak menderatzen duten lautada txiki batean dago. Klima hotzekoa. Eraikuntza arrunteko 5 etxe dauzka, argamasaz eta egurrez eginak. San Martin parrokia-eliza, lehenik eta behin apaiz-etxe dena, biztanleek hautatutako abade batek zaintzen du. Ermita bat ere badago. Mendiak artez eta ezpelez beteta daude. Lur-eremua idorra eta malkartsua da. Lakorre izeneko erreka batek zeharkatzen du herria, eta gero Irati ibaiarekin bat egiten du, Orotz eta Muniain artean. Kareharrizko harrobiak daude, baita ardi aziendarentzako udako belar bikainak eta belardi naturalak ere. Bideak txarrak dira, mendi-bideak baitira. Garia, garagarra, patatak, artoa eta belar onduak hazten dira bertan; behiak, ardiak, ahuntzak eta txerriak hazten dituzte. Industria: egoera kaxkarrean dagoen errota bat dago. 5 auzotar eta 31 arima ditu.

Ibiriku. Ordoki aldapatsu batean dago, hilerriaren kokaleku den goragune txiki baten azpian justu; baina goragunea oso aireztatua dagoenez, ez du osasun publikoan kalterik eragiten. 17 etxe dauzka, gehienak sakabanatuta daude, eta beste batzuk, berriz, kale irregular bat osatzen dute. Bi sexueterako eskola dauka, bertako 9 haur eta herri hauetatik datozen beste 30: Azpa, Erantsus, Elia, Etxalatz, Uztarrotz, Egues, Elkano, Sagaseta, Egulbati eta Altzuzatik. Maisua Elkano eta Ibiriku artean bizi da, txandaka, bi urte batean eta beste bi bestean; noizean behin kobratzen du, eta 1400 erreale inguru jasotzen ditu: 864 erreale 11 herri horietatik eta gainontzekoak ikasleengandik. San Joan Ebanjelariaren eliza, bikario batek zaintzen du; errege-erreginak eta dagokion hilabeteetan herriak berak hautatzen du bikarioa. Eremu honetan pinuz, haritzek eta sasi txikiz osatutako hainbat mendi daude. Lurra idorra da eta kalitate ertainekoa. Herrian bertan elkartzen diren bi errekek zeharkatzen dute herria, eta erreka bakoitzaren alde batetik bestera pasatzeko zubi bat dago. Agoitzera doan bide berri bat dago, egoera onean. Garia, artoa, oloa, patatak, babak, garbantzuak, txakolina eta barazkiak ekoizten dira bertan. Ardiak eta txerriak ere badira. Irin-errota bat dago. 17 auzotar eta 109 arima ditu.

Olatz. Ordoki batean dago, eta bista zabalak ditu norabide guztietan. 18 etxe dauzka, eta gaizki harriztatutako kale zabal bat osatzen dute guztien artean. Lehen hezkuntza eskola dauka, bi sexueterako; 26 edo 30 ikasle inguru hartzen ditu eta 30 anega gari jasotzen. San Pedro Apostoluaren parrokia-eliza dago bertan; errege-erreginaren lehiaketa bidez biztanleek hautatzen duten abade batek zaintzen du eliza. Hilerria hegoaldean dago. Hainbat ibar-baso, eraikuntzarako harrizko harrobiak eta zenbait belardi daude. Lurra idorra da, oso emankorra eta buztintsua. Hiriburura doan bide batek zeharkatzen du herria, baita egoera kaxkarrean dauden beste bidexka batzuek ere. Posta Iruñetik jasotzen du mezulari baten bitartez. Garia, artoa, patatak, ardoa eta lekaleak hazten dira bertan. Ardiak, behiak eta mandoak hazten dituzte. 21 auzotar eta 86 arima ditu.

Sagaseta. Muino baten ekialdeko hegalean dago. Ipar eta hego haizea da nagusi, eta hori dela eta, hanturak eta katarroak izaten dituzte biztanleek. 10 etxe dauzka. Ez dago eskolarik, eta haurrak Egueseko eskolara joaten dira. Santa Engraziari eskainitako parrokia-eliza bat dago, biztanleek hautatzen duten abade batek zaindua, eta aldamenean hilerri bat dago. Zuhaitzik apenas duen mendilerro bat dago bertan, eta bazkarako belar onak ematen dituzten hainbat belardi. Lurra idorra da eta emankorra neurri batean. Egulbatetik jaisten den erreka batek zeharkatzen du herria, eta gero, Eguesekoarekin elkartzen da. Herri barruko bideak egoera txarrean daude. Posta Iruñetik jasotzen du, espres bidez. Garia, oloa, artoa, patatak eta lekaleak hazten dira bertan; behiak eta ardiak hazten dituzte. 10 auzotar eta 44 arima ditu.

Sarriguren. Ordoki batean dago. Ipar eta hego haizeen eraginez hanturak eta katarroak izaten dituzte herritarrek. 6 etxe dauzka, eta parrokia-eliza bat (Santa Engrazia), abade batek zaindua. Haurrak Olatzeko eskolara joaten dira. Lurra idorra da, eta erreka batek zeharkatzen du herria hegoaldeetik, Arga ibairantz. Baso edo belardi bat dago. Mugakideak diren herritara doazen bideak egoera kaxkarrean daude. Garia, artoa, patatak, babak, garbantzuak eta bestelako lekaleak hazten dira bertan. Behiak, zaldiak eta ardiak hazten dituzte. 6 auzotar eta 62 arima ditu.

Uztarrotz. Sakonune batean dago, eta klima epela du. 5 etxe dauzka; San Bartolome parrokia-eliza (biztanleek hautatutako abade batek zaindua) eta hilerri bat, elizaren aldamenean. Haritzek eta pinuz betetako mendi bat du; baso bat ere badu, eta larre ugari eta onak. Lurra idorra da, pentoka ugarikoa, eta urak Egues ibaian isurtzen dituen erreka batek zeharkatzen du. Bideak herri-mailakoak dira, eta erdipurdiko egoeran daude; Iruñetik Agoitzera doan errepidea pasatzen da herriaren iparraldetik. Garia, artoa, patatak, oloa eta babak hazten dira bertan. Behiak, zaldiak eta ardiak hazten dituzte. Biztanleria: 5 auzotar eta 26 arima.

* *Historia de Egüés*, Miguel Larrañaga – Historian doktorea eta Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko (CSIC) kidea

